

Margarita Alberdi Juaristi
Zestoa, Gipuzkoa (1930)

Aurkibidea

Biografia

Zestoa jaio zen 1930. urtean eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak Azkoitikoak zituen. 'Zestoaarren erretolika' libururako egin zitzaion elkarrizketa. Gerra garaia eta garai bateko Zestoa izan zituen hizpide batez ere.

Zintak

ZES-004

- **Proiektua:** Zestoaarren erretolika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azpeitia Eizagirre, Agurtzane
- **Data:** 2002-10-23
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

ZES-005

- **Proiektua:** Zestoaarren erretolika

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azpeitia Eizagirre, Agurtzane
- **Data**: 2002-10-23
- **Iraupena**: 36 min
- **Euskarria**: Mini Disc
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Margarita "mixerikordia" eskolara

- **Erref**: ZES-004/001
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Margarita Zestoan jaio zen eta gurasoak azkoitiarrak zituen. Eskolan "Mixerikordiko" (Misericordia) mojekin ibili zen 13 urtera arte. Adin ezberdineko ikasleak batera egoten ziren gela berean. Mojen aipamena egiten du. "Kultura orokorra" deituriko ikasgaia ikasten zuten eta, liburu bakarra izaten zuten.

2. Mojekin etxeko lanak nola egin ikasten

- **Erref**: ZES-004/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:03:25. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojek "laborea" irakasten zieten, brodatzen adibidez. Eskulan ezberdinak nola egiten zituzten azaltzen du.

3. Miren Aizarnan jaio zen, Itzira Handi baserrian

- **Erref**: ZES-004/003
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Miren Aizarnako Itziar Handi baserrian jaio zen. Ama errezildarra eta aita Itziarkoa zituen. Zortzi anai-arreba ziren eta diru gutxi zutenez sarritan egoten zen osaba-izeben etxean Usurbilen.

4. Eskolara Lasaora oinez

- **Erref**: ZES-004/004

• **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:07:36. **Bukatu:** 00:10:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

<p>Miren eskolan Lasaon ibili zen. Egun guztirako joaten zen eskolara eta bertan bazkaltzen zuen. Komentua zen eskola eta hiru maila ematen ziren bertan. Mojak zituzten maistra eta ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Dotrina irakasgaia oso garrantzitsua zen. Mojek agindutako pasartea buruz ikasten ez bazuten ez zieten uzten eskolatik irteten.</p>

5. Aizarnako eskola eta dotrina

- **Erref:** ZES-004/005
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Mirenek jaunartzea Aizarnan egiten zuten eta eskolara ere bertara joan ziren dotrina ikasten bertan jarraitzeko. Anaia eta biak egoten ziren Aizarnan. Aizarnako eskola deskribatzen du. Neskek eta mutilek maisu-maistra ezberdinak izaten zituzten.

6. Mirenen umetako eskola

- **Erref:** ZES-004/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:14:36

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Jaunartze handia 12 urterekin egin zuen eta, ondoren, Azpeitiko Jesus-Marietara joan zen etxeko lanetarako "laborea" ikastera. Aizarnan izan zuten maistra gorra zela aipatzen du. "Bixigu"n ere ibili zen eskolan; toki askotatik pasa zen. Azpeititik Donostiara joan zen neskame.</p>

7. Lantokiko bizipenak

- **Erref:** ZES-004/008
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:17:54

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Jakue (Santiago) Egunean Santa Engrazira joaten ziren erromeriara. Donostian neskame egon ondoren Zestoako etxe batean aritu zen neskame. Baita Otolan ere beranduago. Lantokiak eta bertako bizipenak aipatzen ditu.

8. Ahizpa jaio zenekoa

- **Erref:** ZES-004/009
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:17:54. **Bukatu:** 00:21:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Ahizpa txikia jaio zenean, Gorostietan zebilen orduan Miren lanean. Kotxerik ez, eta mendibidez ibiltzen ziren.

9. Umetako denbora-pasak

- **Erref:** ZES-004/010
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:24:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Umetan, udazkenean, atariko intxaur arbolatik zeinek gehiago bildu jolasean aritzen ziren. Askarirako, hartutako intxaur haiek izaten zituzten; eta, noizbehinka, baita txokolatea ere. Mirenen anaia oso txokolate zalea zen eta askotan lapurtzen zien txokolatea. Ogia azukrez gozatutako ardota bustita askotan jaten zuten Margaritaren etxean.

10. Umetako jolasak

- **Erref:** ZES-004/013
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:25:10. **Bukatu:** 00:25:43

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Kantei buruzko azalpenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Asakaponetan" jolasten zuten eta bainua hartzera askotan joaten ziren. Mirenek, ahizpak bainua hartzera joaten zirenean, bertsoak nola ateratzen zituen aipatzen du.</p>

11. Anai-arreben ume garaia

- **Erref:** ZES-004/015
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:29:30

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Mirenen etxeko atarian "alberga" bat zegoen eta udan bertan hartzen zuten bainua; neskak eta mutilak txandaka bainatzen ziren. Neguan, arraskan moldatzen ziren. Anekdotak bat kontatzen du. Futbolearen eta karta jokoen "puntuak" eta "zazpi eta erdiak" aritzen ziren.

12. Mirenen umetako gaiztakeriak

- **Erref:** ZES-004/016
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:33:24

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetan, anaien artean pasatako gertaera bat du aipagai: eskolatik piper egin eta gurasoak jakin zutenekoa. Pagoaren ipurdian jarri eta kontu-kontari aritzen ziren anai-arrebak.

13. Margaritaren umetako jolasak

- **Erref:** ZES-004/017
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:33:24. **Bukatu:** 00:35:07

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Margarita ume zela Akura joaten zen anai-arrebekin eta hango lagunekin ibiltzen ziren jolasean: etxeko-andrezketan, kukuka, kozineketan eta abar.

14. Gereziak, zuhaitzetik zuzenean

- **Erref:** ZES-004/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:36:53

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Umetan gereziak zuhaitzetik jaten zituzten hezur eta guzti Mirenek eta bere anai-arrebek. Mutilak igotzen ziren gerezi arbolara eta handik zuhaitza astintzen zuten, gero neskek gereziak jasotzeko. Gerezi ugari izaten zen eta amak azokan saltzen zituen.

15. Sagar mota ezberdinak

- **Erref:** ZES-004/019
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:36:53. **Bukatu:** 00:40:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Etxean izaten zituzten fruta-arbolak. Sagarrondoak eta sagar ezberdinen izenak: errege-sagarra, gazi haundia... Sagarrak makila puntadun batekin biltzen zituzten otarrera.</p>

16. Etxeko sagardoa

- **Erref:** ZES-004/020
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:40:42. **Bukatu:** 00:41:52

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Mirenen etxean bazegoen dolarea eta sagardoa egiten zuten. Sagarra makina batean txikitzen zuten.</p>

17. Errotara izkutuan

- **Erref:** ZES-004/021
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:41:52. **Bukatu:** 00:46:22

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerra denboran, errotak zainduta egoten ziren eta, irina "igotzeko" (ehotzeko) izkutuan, gauez, aritzen ziren Miren eta ingurukoak. Errota etxetik gertu zuten. Errazionamendua ezagutu zuen eta ogi beltza izaten zen jasotzen zutena; etxean zuria egiten zuten bestea jaterik ez zegoelako; ganaduak ere muzin egiten zioten ogi beltzari. Taloa etxean nola egiten zuten azaltzen du.</p>

18. Errazionamendua

- **Erref:** ZES-004/022
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:48:27

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Patataren ordezkotik bat edukitzen zuten errazionamenduan. Kanpotik

ekarritakoa zen eta boniatua izena zuen. Kartila batzuk izaten ziren errazionamendurako eta udaletxean partitzen zituzten. Margarita eta beste herritar batzuek aritu ziren errazionamenduko kartilak egiten.

19. Morokila eta arto-zopak

- **Erref:** ZES-004/024
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:50:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Morokila nola egiten zuten eta zein osagai izaten zituen aipatzen du. Morokila esnearekin bustita jaten zuten gosaltzeko. Arto-zopak ere izaten zituzten baina lehorragoa izaten zen.

20. Arto-zuritzea eta gari-jotzea

- **Erref:** ZES-004/025
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:50:05. **Bukatu:** 00:52:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Artoa zuritzeko garaian, familian elkartzen ziren eta ganbaran aritzen ziren elkarrekin lanean. Arto-lastoz egindako koltxoak izaten zituzten, nola egiten ziren azaltzen du Mirenek.</p>

21. Gari-jotzea

- **Erref:** ZES-004/026
- **Iraupena:** 0:05:31. **Hasi:** 00:52:32. **Bukatu:** 00:58:03

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoko lagunak elkartzen ziren gari-jotzera. Prozesua nola izaten zen azaltzen du eta zein urte sasoitan izaten zen.

22. Baserriko lanak eta gertaerak

- **Erref:** ZES-004/027
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:58:03. **Bukatu:** 01:02:36

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Baserriko zenbait eginkizun aipatzen ditu: patata ateratzea, arto-jotzea eta

abar. Goizean goiz lastargia hartu eta Aizarnara joaten ziren meza entzutera. Etxeratzean, arrautzak eta txerrikia prestatu eta gurasoak mezan zeuden bitartean gosalduegiten zuten anai-arrebek. Orduko pasadizoak aipatzen ditu Mirenek; lehenengo irratia ezagutu zuenekoak, besteak beste.

23. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** ZES-004/028
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 01:02:36. **Bukatu:** 01:07:42

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Urtean bi txerri hiltzen zituzten baina, beldurra zioten langintza hari. Gerra garaian sardina zaharrak arrautzarekin jaten ziren. Mirenek anaiak oilaskoekin egindako barrabaskeria bat aipatzen du.</p>

24. Oilasko biltzeak

- **Erref:** ZES-004/030
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 01:10:17. **Bukatu:** 01:13:17

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Engraziko, Aizarnako eta Zestoako jaietan oilasko biltzea egiten zen. Goizean goiz bildu eta bailaran baserriz baserri ibiltzen ziren oilaskoak jasotzen. Apaizei urtero ematen zitzairen oilaskoren bat, soroak, etxeak eta abarrak bedeinkatzearen trukean.

25. Festatik etxera ilunpetan, mutilen beldur

- **Erref:** ZES-004/031
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:13:17. **Bukatu:** 01:14:58

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Done Jakue edo Santiago Eguna iristen zenean, mendiz joaten ziren festara eta ilunpetan bueltatzen ziren. Etxera bueltan zetozenean, mutilen beldur izaten ziren.</p>

26. Gaztetako ibilerak

- **Erref:** ZES-005/002
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:03:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Lagun arteko gaztetako ibilerak eta anekdotak kontatzen ditu.

27. Zestoako eta inguruko festak

- **Erref:** ZES-005/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:05:23. **Bukatu:** 00:08:10

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriara Santa Engrazira eta festetara Lasaora joaten ziren; bertsolariak, pilota partidak eta soinua izaten ziren besteak beste. Zestoako Ama Birjinaren jaietan, ezagunak izaten ziren zezenketak. Erromeria berriz goiz aldeko 3ak arte izaten, banda eta musika taldeekin. Pilota partida asko izaten ziren Zestoan eta apaiza pilotan ibili zenekoa kontatzen dute.</p>

28. Kanpotarrak etxeetan apopilo

- **Erref:** ZES-005/006
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:12:00

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Udan, egunero izaten ziren pilota partidak. Merenderoan txokolatea txurroekin ematen zuten. Kanpotar ugari herriratzen zen eta etxeetan apopilo hartzen zituzten. Askok ateratzen zuten bizimodua apopiloekin irabazitakoarekin.

29. Titiriteroak eta musika kalean

- **Erref:** ZES-005/008
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:15:45

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Kalean animazio handia egoten zen. Titiriteroak ere egoten ziren eta afalondoan plazan eta merenderoan aritzen ziren txandaka. Ikuskizuna ikusteko norberak eramaten zuen etxetik bere aulkia plazara. Ostegun eta igande arratsetan musika egoten zen kalean.

30. Zestoako zinea

- **Erref:** ZES-005/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:19:05

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Zestean, zinea Don Emeteriok jarri zuen 18 urte inguru zituztenean Margaritak eta Mirenek. Zinerako zaletasun handia zegoen. Uda batean bota zuten pelikula ezagun baten aipamena eta zer nolako ospea izan zuen aipatzen dute. Bi emanaldi ematen zituzten, arrat partean eta gauean.

31. Bainuetxeko ura gibela garbitzeko

- **Erref:** ZES-005/010
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:48

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Bainuetxeko ura gibela garbitzeko ona zen eta bertaratzen zen jendeak botiletan eramaten zuen ura etxera. Lurdesko uraren aipamena egiten dute. Zestoako bainuetxeko urak gustu eta usain txarra zuen eta karamelua eramaten zuten, poltsikoan ura edan ostean karameloak jateko.

32. Oilo txanbilaren inguruko pasartea

- **Erref:** ZES-005/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Olio txanbil batekin gertatutako anekdota kontatzen dute.

33. Umeen gaiztakeriak

- **Erref:** ZES-005/013
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:28:45. **Bukatu:** 00:29:56

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Orduko amaren esanak eta betebeharrak eta umeen gaiztakeri eta zigorrak aipatzen dituzte.

34. Kanpai mota ezberdinak

- **Erref:** ZES-005/014

- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:33:38

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Kanpai ezberdinak aipatzen dituzte, erre-kanpaia edo su-kanpaia, anjelusetakoak, mezetakoak etab. Hildakoa aberatsa edo txiroa izan, hiletak ezberdinak izaten ziren, jantzi, kanpai eta apaiz kopurua esaterako.

35. Hiletak eta ohiturak

- **Erref:** ZES-005/016
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:12

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Hildakoaren senitartekoei dirua ematen zitzaien mezan. Hileta ondorenean, tabernan ardo-goxoa eta pastak jartzen ziren. Umeren bat jaiotzen zenean oiloa eramaten zitzaien opari gisa.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com